



Azalpena HE2 Adimen anitzen teoria

I. ENTZUNDAKOAREN EDUKIA

Gaur pertsonen adimenari buruz hitz egin behar dugu Arantzazu Muñoarekin.

Egokiagoa litzateke pluralgilea erabiltzea, zeren adimenak bat baino gehiago dira pertsonengan.

Gaur egun, pedagogiaren arloan dezente hitz egiten da askotariko adimenen edo adimen anitzen teoriari. Euskal Herriko zenbait ikastetxetan teoria horretan oinarrituz ari dira lanean. Howard Gardner psikologoa eta Harvard Unibertsitateko irakaslea da teoria horren aita. 1982an plazaratu zuen. Horren arabera, adimena ez da bakarra ezta estankoa ere. 8 inteligentzia mota daude. Gauza batean ez bada bestean, guztiok gara inteligente edo bizkor.

Bizkorak bereizteko, matematikan eta fisikako emaitza akademikoetan bakarrik oinarritzen ziren lehen.

Tradizioz abilezia linguistikoak eta logika matematikoak balioetsi izan dira nagusiki. Urteetan egin izan diren koefiziente intelektuala neurtzeko testak bi esparru horietan oinarritu izan dira. Maila batetik gorakoak azkarrak, adimentsuak ziren ebaluazioek hori ziotelako. Eta hortik beherakoak, kontrakoak. Testen arabera batzuk dira besteak baino inteligenteagoak. Baina, askotan, eskolak balioesten ez dituen eremuetatik kanpo pertsona batzuk daude. Eta horiek ez dira adimentsu, ez dira bizkor? Harremanetarako sekulako gaitasuna izan, baina ikasketetan gaizki doana dago; edo gorputz abilezia izugarria eduki, baina eskolan nabarmendu ez dena.

Hortaz, abilezia askotarikoak ditugu, eta adimenak horiek denak biltzen ditu. Teoriak 8 bereizten ditu:

1. Musikala: doinuak eta erritmoak identifikatzeko, erreproduzitzeko eta sortzeko adimena
2. Linguistikoa: ongi komunikatzeko eta hizkuntzak egoki erabiltzeko gaitasuna
3. Logiko-matematikoa: logikarekin eta matematikarekin lotutako problemak ebazteko gaitasuna
4. Gorputz-adimena (adimen zinestetikoa): norberaren gorputza erabiltzeko gaitasuna
5. Bisual-espaziala: hiru dimentsioak eta mugimenduak nahiz abiadurak identifikatzeko gaitasuna
6. Intrapertsonala: norbere burua ezagutzeko, barnera begiratzeko eta emozioak kudeatzeko gaitasuna
7. Interpertsonala: besteekin erlazionatzeko eta harremanak izateko
8. Naturalista (momentuz, azkena): naturan dauden elementuekin harreman ona izatekoa

DNAk zer garrantzi hartuko luke?

Genetikak badu eragina, baina ez da erabakigarria. Gardenerren arabera, burmuina moldagarria da. Adimena ez bada estatikoa eta finkoa, landu egin daiteke, eta pertsonak ez dira jaiotzetik adimentsuak edo ez adimentsuak. Guztiok irits gaitezke adimen guztietara, baina landu egin behar dira.

Adimen anitzaren bila, ez daukagun adimen mota lantzen jarri beharko dira indarrak.

8 adimenetatik bi edo hiru oso garatuak ditugu denok jaiotzetik, beste bi edo hiru erdipurdi eta beste bi edo hiru ez oso garatuak. Garrantzitsua da nork bere burua, irakasleek ikasleak eta gurasoek seme-alabak ezagutzea, adimentsuak diren arloak garatzeko eta besteetan trebatzeko.

Bikaintasunik eskatu gabe eta presiorik erantsi gabe, ontasunaren bila jokatu beharko litzateke? Nola?

Gardenerrek garrantzi handia ematen zion ontasunari. Ezin da profesional ona izan ontasuna garatu gabe. Hitlerren adibidea jarri izan da askotan. Oso adimentsua zen harreman interpertsonaletan, baina zer lider mota zen? Zer helbururekin erabili zuen bere adimen hori? Gardenerrentzat adimenak ekintza onetarako erabili behar dira eta ez ekintza makurretarako.

Adimen testak ez zituen gogoko.

Aurka dago. Arazoren bat egon litekeenean erabiltzea egokia da, baina haurrak adimentsuak diren edo ez jakiteko, ez. Gomendatzen du ez erabiltzea, ez irakasleek, ez gurasoek.



II. ENTZUNDAKOTIK ABIATUTA

- Zer ulertzen duzu zuk adimen anitzei buruz? Ados zaude entzun duzunarekin?
- Zure ustez, balio bera eman behar zaie adimen mota guztiei? Zergatik?
- Eskolan, berdin lantzen al dira adimen mota guztiak?



Azalpena HE2

Adimen anitzen teoria

Pedagogiak askotariko adimenak hartzen ditu aintzat gaur gaurkoz, baina orain gutxi arte azkarrak zirenen eta ez zirenen arteko bereizketa izan da hezkuntzaren ardatzetako bat, zientzietako diziplinetan batez ere. Hezkuntzari eskainitako tartean, Howard Gardner irakasle eta ikerlariaren 'Adimen anitzen teoria' izan du hizpide *Mezularian* Arantzazu Muñoa Hik Hasi aldizkariko kazetariak.

Entzun ahala, hartu oharrak eta osatu eskema. Eskema erabiltzeak informazioa antolatzen eta azalpen argia egiten lagunduko dizu.

1. SARRERA:

2. GARAPENA:

- Eraitza akademikoak eta abileziak

- Adimen motak (adibide batzuk)

- Genetikaren eragina

- Ontasuna

- Adimen-testak

3. AMAIERA: